

Gaia: Euskal Curriculumaren inguruan iritzia emateko aukera

Asunto: Una oportunidad para opinar sobre el currículum vasco

Vitoria-Gasteizen, 2006ko martxoaren 27an

Agur t'erdi:

Albistegietan dagoen gaia da Euskal Curriculumarena eta ez da gutxiagorako. Euskal Autonomia Erkidegoan Jaurlaritza martxan jarri zenetik, hainbat ahalegin egin dira, baina gaur arte ezin izan dira gauzatu.

Oraingoan, badirudi indarrez datorrela Ikastolen Elkarteko adituen eskutik eta babes eta onarpen zabalarekin: Kristau Eskolak (lehen FERE), Hezkuntza Saileko hainbat adituen parte-hartzea, EIB, Sortzen-Ikasbatuak eta beste hainbat erakunde, besteak beste, sare publikoko gurasoen federazioak eta irakasleen ordezkariak.

Herri batentzat, bere eskolentzat, funtsezkoa deritzogu *curriculum* adostu bat, guztiontzat erreferentziala izango dena, edukitzeari.

Orain arte adituak aritu dira gaia lantzen eta orain guri dagokigu gai honen inguruan zer pentsatzen dugun adieraztea. Ikastolan, irakasleek egin dituzte etxerako lanak eta orain guraso, ikasle eta nahi izanez gero, baita ikasle ohiek ere, zuen iritziak plazaratzeko aukera duzue. Horretarako, eta aditu horiek egindako txostena zabaltzea lan zaila dela kontuan izanik, ikastolako web orrian ([www.olabideikastola.com](http://www.olabideikastola.com)) txertatu dugu dokumentua. Beraz interesatuta zaudetenok irakurri eta jaitsi dezakezue, nahi izanez gero.

Agur t'erdi:

El Currículum Vasco es un tema que aparece en los informativos y hay buenas razones para ello. Desde que el Gobierno Vasco se puso en marcha en la Comunidad Autónoma Vasca, se han realizado múltiples esfuerzos que no han podido materializarse hasta este momento.

En esta ocasión, parece que irrumpe con gran fuerza de la mano de los expertos de la Federación de Ikastolas y cuenta con un gran apoyo y aceptación: Escuelas Cristianas (anteriormente, FERE), participación de varios expertos del Departamento de Educación, EIB, Sortzen-Ikasbatuak y otras entidades como son la federación de padres y representantes de los profesores de la red pública.

En nuestra opinión es fundamental para un pueblo, para su escuela, poseer un currículum consensuado que sea referencial para todo el mundo.

Hasta ahora, son los expertos los que han estado trabajando en este tema y ahora nos corresponde a nosotros expresar la opinión que tengamos al respecto. En la Ikastola, los profesores ya tienen realizadas las tareas de casa y ahora sois vosotros, padres, alumnos y también ex alumnos, los que tenéis la oportunidad de expresar vuestras opiniones. A tal fin y ante la dificultad de difundir el informe realizado por tales expertos, hemos insertado el documento en la página web de la Ikastola ([www.olabideikastola.com](http://www.olabideikastola.com)). Por lo tanto, aquellos que estéis interesados podéis leerlo y bajarlo.

Era berean, zuen iritzia plazaratzeko, galdeketa bat zintzilikatu dugu aipatutako orrian. Nahi duenak azaldu dezake bere iritzia, galdeketa hori modu errazean betez. Jasotako erantzunak atalka jarri (guraso, ikasle eta ikasle ohi) eta gaia koordinatzen duen taldeari bidaliko dizkiogu.

Gauza guztiekin gertatzen den bezala, lan hori ere epe jakin baterako eginda egon behar da eta apirilaren 7a jarri digute azken eguna.

Bada, momentuz, besterik ez. Gaiari murgiltzera animatzen zaituztegu, finean, guztion ekarpenekin gauzatzen bada aberatsagoa eta onartuagoa izango baita.

Al mismo tiempo, para dar a conocer vuestra opinión, hemos colgado un cuestionario en dicha página. Por lo tanto, quien quiera expresar su opinión, puede hacerlo respondiendo de una manera fácil a las preguntas que se plantean. Las respuestas recibidas las clasificaremos por secciones (padres, alumnos y ex alumnos), para enviárselas al grupo que se encarga de coordinar el tema.

Como para todo, contamos con un plazo para llevar a cabo esta tarea, y en concreto el plazo límite que nos han dado es el 7 de abril.

Por el momento, nada más. Os animamos a sumergiros en el tema, porque, al fin y al cabo, si se realiza con la aportación de todos, el resultado será más enriquecedor y contará con un mayor consenso.

**Andone Ruiz Uranga**  
**Zuzendari Pedagogikoa**